

MENDEBERRI 2020 hitzaldi zikloa

2014/02/25

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK definitutako misioan jasotzen da **"gizartearen eraldaketarekin konpromisoa"**. Jarrera hau garai berrietara egokitzea baino haratago doa; aldaketak bideratzea eskatzen du, edo gutxienez, aldaketak gaur egungo desoreka sozialak gainditzera zuzendu.

2000. urtean MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Mendeberry Proiektua abian jarri zuenetik, gure hezkuntza proiektuak eraldaketa garrantzitsu bat jasan du. Une hartan, gure unibertsitateak gizartearen diagnostiko baten ildotik, gaur egungo hezkuntza ereduaren oinarriak definitu zituen, hala nola, **konpetentzietan oinarritutako curriculumen diseinua, eleaniztasuna, balioen garapena eta IKTen erabilera.**

2008. urtean MONDRAGON UNIBERTSITATEA formalki Boloniako prozesuan murgiltzen da, gure eskaintza akademikoa birmoldatuz, hezkuntza esparru berrietara zabalduz eta gure hezkuntza ereduaren sakonduz. Bide batez, Mendeberry 2.0 eta MU Online proiektuak ere abian ipini genituen, aro digitalak dakartzan eszenario berrietara gure hezkuntza proiektua gerturatu asmoz.

2013-2016 Plan Estrategikoan **1go ERRONKA HEZKUNTZA EREDU PROPIOA definitu zen: MONDRAGON UNIBERTSITATEA aitzindari eta erreferente bihurtzea hezkuntza eredu aurreratuetan, 2000.** urtetik gure gizarteak jasan dituen aldaketa esanguratsuak kontutan izanda, gure hezkuntza proiektuak datorren hamarkadako paradigma berrietara gerturatzeko.

Boloniako prozesuaren ildotik unibertsitate sistema Mendeberryren oinarrietara gerturatu da eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK aurrerapauso bat emateko momentua heldu da, hezkuntza eredu aurreratuaren garapenean izan duen lidergoari eutsi asmoz. Prozesu honetan, gizartearen orokorrean, eta unibertsitate eta hezkuntza sisteman ematen ari diren aldaketen inguruan hausnartzeko, hitzaldi saio batzuk antolatu ditugu. Konferentzia eta hausnarketa horien ondoren, **gure hezkuntza proiektuaren etorkizuneko ezaugarriak definituko ditugu fakultate guztien artean.**

Hitzaldi hauek irekiak izango dira eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko langileriaz gain, gaiaren inguruan interesa duen orok parte hartzeko aukera izango du. Horretarako, mendeberry2020.mondragon.edu/ helbidean izena eman beharko da.

HITZALDIAK:

LEHENENGO HITZALDIA:

Hizlaria: Joseba Azkarraga (Soziologoa)
Gaia: Gizarte aldaketak eta jasagarritasuna
Eguna: otsailak 28a
Ordua: 14.30etan
Tokia: Aretxabaletako Campusean

BIGARREN HITZALDIA:

Hizlaria: Mikel Mancisidor (UNESCO Etxeako zuzendaria eta Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen batzordeko kidea)
Gaia: Giza garapena eta jasagarritasuna
Eguna: martxoak 12a
Ordua: 11.30etan
Tokia: Arrasateko Campusean

HIRUGARREN HITZALDIA:

Hizlaria: Guy Haug (Bologna Expert Group-eko kide eta goi-mailako hezkuntza sisteman aditua)
Gaia: Goi-mailako hezkuntzaren etorkizuneko erronkak eta tendentziak

Eguna: zehazteke

Ordua: zehazteke

Tokia: Oñatiko Campusean

LAUGARREN HITZALDIA:

Hizlaria: Maite Goñi (Hezkuntza eta IKTetan aditua)

Gaia: Teknologiak hezkuntzan eta ikaste inguru berriak

Eguna: apirilaren 9a

Ordua: 11:30etan

Tokia: Arrasateko Campusean